

Aurten euskerazko misañoak izan dira San Juan-go eleizan igaz bezala; gaiñera neskameentzat ere bai Jesuiten Jesusen Biotz Sakratuaren eleizan. Eskolapioetan leenbiziko ostiraletan arratsaldean meza bat egoten da. Frantzizkotarrak ere egin dituzte bederatiurren bi batera.

Astrabuduan Ostiral Santuz Kurutze bide bizi bat egin zen, euskaldunentzat euskerazko itzak izan zirelarik, Gatika-n "Pasionea" eman zen erramu igandez.

BIZKAIKO BERTSOLARIEN LENENGO SARIKETE

Aurten Bilbo-n Euskaltzaindiak antolatuta, Bilbo-ko jaien barruan, Bizkaiko bertsolarien lenengo sariketea egin da. Ama Virginiaren egunean, agustuko amabostean egitekoa zan, baiña euriagatik atzeratu egin bear izan zen eta agustuko 24-an egin zen Arenala puntatik puntara betterik zegoala. Bizkaiko txapeldun Valentin Embeita jauna gelditu zen eta Bizkaiko Diputaziñoaren kopa eta iru milla peseta eman zitzaizkan; bigarren, Juan Ormaetxe jauna eta Bizkaiko Ahorro-kaxaren kopa eta bi milla peseta; irugarren, Jose Alberdi jauna eta Bilbo-ko Ahorro-kaxaren kopa eta zazpireun eta berrogeta amar peseta; laugarren, Asensio Bidaurrezaga jauna, bosteun peseta; bosgarren, Eusebio Zubiaga jauna, bosteun peseta; eta azkenez Pedro Kastrejana eta Florenzio Zarraga, bosteun peseta hakoitzari. Bizkaiko errietatik gente asko eta asko etorri zen eta datorren urterako beste bertsolari asko prest daude su ta ke ekiteko, leenbizi errietan, ia nor geldituko Bilbo-ko finalerako.